



## 1. KANPAINA – Kanpaina eta mezua

Eskuetan dituzun lagungarriok 2021.eko azaroaren 14an, igandez, ospatuko den **Pobreen Munduko V. Eguna** ospatzeko gida bihurtu nahi dute.

Pobreen Munduko lehen eguna, 2017.eko azaroaren 19an ospatu zen, Frantzisko Aita Santuaren nahia betez: ospakizun hau Elizaren agendan txertatu, “banatzea benetakotasun ebanjelikoaren adierazgarri” dela ziurtatuz.

Harrezkero, pobreen munduko egunaren ekitaldi bakoitza, oroigarri eta dei da, kristau guztiek urrats ausartak eman ditzaten pobretasunaren eragileak (pertsonalak, ingurumenari, egiturari lotutakoak) murrizteari begira.

Pobreen Munduko V. Egun honek bat egiten du Bilboko Elizbarrutian 2021-22 kurtsorako aukeratutako goiburuarekin: *«BatGara, Creamos comunidad acogedora»*.

Azken batean, Nazaretoko Jesusen jarraitzaile bezala hazten jarraitu nahi dugu, eta, sinestedunen elkarte eraiki, hemen, Bizkaian, Frantzisko Aita Santuak Pobreen Munduko V. Egun honetarako kaleratu duen mezuan adierazitako uste sendoa egia bihurtuz:

*“Pobreak ez dira elkartetik ‘kanpoko’ pertsonak, anai eta arreba baizik eta beren sufrimendua geure egitea dagokigu, beren ondoeza eta bazterketa arintzeko, galdutako duintasuna itzultzeko eta ezinbesteko gizarteratzea ziurtatzeko (...) konpartitzeak senidetasuna sortzen du (...) konpartitzea iraunkorra da. (...) elkartasuna sendotu egiten du eta zuzentasuna jadesteko ezinbesteko oinarriak finkatzen ditu. Azken batean, sinestedunek, Jesus bera ikusi eta ukitu nahi dutenean, badakite nora jo, pobreak Kristoren sakramentu dira, Kristo irudikatzen dute eta Kristori begira jartzen gaituzte”.*

Egun hau bitarteko pedagogiko bilakatu nahi dugu, eremu akademikoan nahiz pastoralean, gure haur eta gazteen fede sarbiderako prozesuetan fedearen gizarte alderdia sendotu ahal izateko.

Horregatik, dei egiten dizugu ekimen hau zure programazioan txerta dezazun, ondoren aurkezten diren jardueretatik zure errealitateari ondoen egokitzen zaiona martxan jartzeko.

Agur bero bat.

## 2. POLIEDROA – Irudi adierazgarria

I. ERANSKINA: Irudia, poliedroa egiteko.

## 3. PROPOSATUTAKO EKINTZAK

### ELIZBARRUTIAN 21-22 KURTSORAKO AUKERATU DEN GOIBURUA ETA HEZITZAILEEI (IRAKASLE, KATEKISTA, BEGIRALE) ZUZENDUTAKO POLIEDROAREN IRUDIA AZALDU

Dakizuenez, *«BatGara-Creamos comunidad acogedora»* goiburua aukeratu izan da Bilboko Elizbarrutian eta irudi geometriko batez –poliedroaz– baliatuko gara ideia hau zabaltzeko.

Goiburua: *«BatGara-Creamos comunidad acogedora»* sinodo-senaren ideia helarazi nahi du, guztiok batera, geure askotariko bokazio, karisma lurralde, PB, ordezkaritza, elkarte, plataformetatik..., ‘gu’ berria, elkarte osatzen dugula, bat garela, XXI. Gizaldiko eliza sortzen dugula nabarmendu.

Sinboloa: “*EL POLIEDROA*”, hainbat aurpegi dituen irudi geometrikoa da eta, azken batean, aniztasun eta osagarritasunean aberatsa den Bizkaiko Eliza irudikatzen du.

21-22 kurtsorako Elizbarrutian aukeratu dan goiburuan eta poliedroan oinarrituta, egokitzapena egin dugu Pobreen Munduko Egunerako.

Goiburu honen bidez, elkartearen ezinbesteko egitekoa nabarmendu nahi dugu: bere eskua kaltetuenei, ahulezia handian daudenei luzatu. Euskarazko esamoldea, “eutsi nire eskua”, adiera bikoitza izan dezake: eskua luzatu eta eskaintzen dugun edo eskaintzen diguten eskuari oratu.

Sinboloa: “*Poliedroa*”. Irudi geometriko hau erabiliko dugu, alde batetik, geuk ere jasan ditzakegun askotariko bazterketak irudikatze eta, bestetik, Bizkaiko Elizak egoera larri eta ahulean daudenen alde egiten dituen elkartasun eta zuzentasunezko askotariko jarduerak nabarmentzeko.

**GELETAN, KATEKESIAN, TALDEETAN...  
GARATZEKO JARDUERAK**

Pastoral goiburua eta Pobreen Munduko Egunerako (PME) goiburua oinarritzat hartuta, hainbat jarduera prestatu dugu.

Adin-multzo jakin batzuetarako pentsatutako jarduerak dira, baina, jakina, bakoitzak erabakiko du jarduera bata ala bestea adin multzo batean ala bestean erabili.

Jarduerak garatu aurretik, hezitzaileok (irakasle, katekista, begirale...) haur eta gazteei Elizbarrutiaren pastoral goiburua, Pobreen Munduko Eguna eta PMEko goiburua azaldu behar diegu haur eta gazteei eta testuinguruan kokatu behar ditugu, agiri honetan eman dizkizuegun azalpenez baliatuz.

### ● **Jarduera 2-8 urtekoentzat**

Bi eta zortzi urte bitarteko haurren artean PMEaren inguruan sentiberatasuna pizteko giza aniztasuna eta bizi ditugun askotariko egoera pertsonalak nabarmen ditzakegu. Pertsona guztiok ez gara berdinak, ez dugu bizimodu bera, aukerak ere ez dira berdinak denontzat...

Pertsonei eta egoerei dagokien aniztasun horrek errealitate jakin bat sortzen du.

Guztiok bat eginik, egoera hori aldarazi eta guztiontzat hobe bihur dezakegu.

Erdian PMEko goiburua, idatzita duen poliedroa aurkezten dugu (A4 eta A3 formatuan, eta ikasleen artean banatzeko) kontzeptu honen inguruan sentsibilizatzeko.

Ipin ezazue poliedro hau, tamaina handiko formatuan, gela edo lokaleko horman edo lurrean, eta hurrek esku-margoez, errotuladorez edo margoez poliedroaren aurpegiak margo ditzatela.

Geroago, berriz margotuko dituzte poliedroaren aurpegi berak gainetik beste kolore batzuek. Koloreak nahastatzean, kolore berria sortuko da.



Erabili gorria, urdina eta horia, nahasteak kolore berriak sortzen dituelako.

Amaieran zera azal diezaiekegu: nahastatuz, elkarlanean arituz, egoera berriak sor ditzakegula, pertsonen bizimodua hobetzeko bideak ireki. Zerbait berria sor dezakegu.

### • **Jarduera 8-12 urtekoentzat (pendiente de acuerdo y redacción)**

Zortzi eta hamabi urte bitarteko haurren artean PMEaren inguruan sentiberatasuna pizteko giza aniztasuna eta bizi ditugun askotariko egoera pertsonalak nabarmen ditzakegu. Pertsona guztiok ez gara berdinak, ez dugu bizimodu bera, aukerak ere ez dira berdinak denontzat...

Pertsonei eta egoerei dagokien aniztasun horrek errealitate jakin bat sortzen du.

Guztiok bat eginik, egoera hori aldarazi eta guztiontzat hobe bihur dezakegu.

Erdian PMEko goiburua, idatzita duen poliedroa aurkezten dugu (A4 eta A3 formatuan, eta ikasleen artean banatzeko) kontzeptu honen inguruan sensibilizatzeko. Poliedroa egin eta apain dezatela bertan beren aurpegiak margotuz.

Poliedroak ondo ikusteko lekuan ipini.

### • **Jarduera 12-16 urtekoentzat**

Pobreen Munduko Egun honetan, Bizkaiko Elizak kaltetuenen eta bazterketa jasateko arriskuan daudenen alde gauzatzen dituen elkartasunezko ekintza anitz eta ugariak ezagutzera eman ditzakegu.

Bi helburu lortu nahi ditugu ekintza hauen bidez:

1. Elizak kaltetuenen alde egiten duen gizarte lan aberatsa ezagutu.
2. Beren buruari galdera egitera bultzatu: *Eta nik, zer egin dezaket?*

Aberastasun hori agertzera emateko, Elizbarrutian 21-22 kurtsorako aukeratu dan pastoral goiburuaren sinbolo den irudi geometrikoa, poliedroa, erabiliko dugu.

### **1. jarduera**

Gela taldeetan banatuko dugu eta talde bakoitzari poliedro bat emango diogu Din A3 formatuan.

Neska-mutilek, Bizkaiko Elizak gauzatzen dituen elkartasun-ekintzak ikertu ondoren, poliedroaren aurpegieta agertuko dituzte, ahal izanez gero, irudien bidez.

Jarduera amaitu ondoren, osatutako poliedro guztiak ikusteko eran jarriko ditugu ikastetxean, parrokian edo lokalean. Honela, Bizkaiko Elizaren "aurpegi" solidarioen aniztasuna erakutsiko dugu.

Poliedroaren aurpegieta agertuko ditugun ekintza solidarioak era askotakoak izan daitezke, hala nola: nire ikastetxeak, parrokiak, elkarteak, taldeak,

mugimenduak,... garatzen dituen ekintza solidarioen bilduma edo ikertu ditugun eta Elizako beste hainbat erakundek gauzatzen dituen ekintzak.

Hona hemen hainbat esteka, argibide erara:

- Caritas: <https://www.caritas.es/que-hacemos/>
- Kartzela Pastoralta: <http://www.bizkeliza.org/?id=2214>
- Migrazioak: <http://www.bizkeliza.org/?id=2217>
- Elizbarrutietako Misiok:  
<http://www.bizkeliza.org/pastoral/misiones/campana-misiones-diocesanas-2021/>
- Lan-kanpamentua: <http://www.bizkeliza.org/noticia/encuentro-y-campo-de-trabajo-de-jovenes-de-las-parroquias-de-las-arenas-y-romo/>
- Gizarte jantokiak: <https://www.caritasbi.org/cas/que-hacemos/intervencion-social/personas-sin-hogar/centro-apostolicas-comedor-social-y-centro-de-dia/>
- Auzobizi egitasmoa: [Auzobizi - YouTube](#)
- BAM Irakasle Eskola: [Heziketa etorkinentzat BAMen - YouTube](#)
- Euskalerriko Eskautak Bizkaia: <https://bizkaia.eskaut.org/5m-el-abrazo-de-los-pueblos-de-las-personas-y-de-los-derechos-humanos/>
- Itaka-Eskolapioak: <https://www.itakaescolapios.org/que-hacemos/hogares/>
- Alboan: <https://www.alboan.org/es/que-hacemos/proyectos>
- Lagun-artean: [http://www.lagun-artean.org/?page\\_id=10](http://www.lagun-artean.org/?page_id=10)
- ...

## 2. jarduera

“Bertsoa” sortu Bizkaiko Elizak ahul eta kaltetuenen alde egiten duen apustuari buruz.

Etorria sustatzeko, osatutako bertso bat jarri dugu eta audioa elkarrekin abesteko (II. ERANSKINA).

Neska-mutilek bertsoak egin ondoren, gelan, taldean entzun daitezke eta baita kristau elkarteak ospatzen duen Eukaristian abestu edo irakurri.

Bertsoak talde bakoitzari eman diogun A3 poliedroaren aurpegietan idatz daitezke.

### • Jarduera 16-18 urtekoentzat

Pobreen Munduko Egun honetan, Bizkaiko Elizak kaltetuenen eta bazterketa jasateko arriskuan dauden alde gauzatzen dituen elkartasunezko ekintza anitz eta ugariak ezagutzera eman ditzakegu.

Bi helburu lortu nahi ditugu ekintza hauen bidez:

1. Elizak kaltetuenen alde egiten duen gizarte lan aberatsa ezagutu.

## 2. Beren buruari galdera egitera bultzatu: *Eta nik, zer egin dezaket?*

### 1. jarduera

Ikastetxean, parrokian, mugimenduan,... gauzatzen diren askotariko ekintza solidarioak aurkez ditzakegu gela edo lokaletan, egitasmo horietan esku-hartzen duten gazteak gonbidatu eta egin dituzten edo egiten ari diren jarduerak azaltzeko aukera emanez.

Esate baterako: elkartasun-kanpainen, lan-kanpamentuen, eskola-laguntasunaren, etorkinen aldeko lanaren,... berri eman dezakete.

Ikastetxeko, parrokiako, e.a., pertsonak gonbidatuz egin daiteke, edo beren-eregi nabarmendu nahi dugun gizarte konpromisorako errealitatearen batekin hartu-emanen jarriz.

Gelan edo taldean horrelako aurkezpenak egitea ezinezkoa bada, Bizkaiko Elizan garatzen diren gizarte ekintzak iker ditzakegu internet bidez.

Hona hemen hainbat esteka, argibide erara:

- Caritas: <https://www.caritas.es/que-hacemos/>
- Kartzela Pastoralta: <http://www.bizkeliza.org/?id=2214>
- Migrazioak: <http://www.bizkeliza.org/?id=2217>
- Elizbarrutietako Misiok:  
<http://www.bizkeliza.org/pastoral/misiones/campana-misiones-diocesanas-2021/>
- Lan-kanpamentua: <http://www.bizkeliza.org/noticia/encuentro-y-campo-de-trabajo-de-jovenes-de-las-parroquias-de-las-arenas-y-romo/>
- Auzobizi egitasmoa: [Auzobizi - YouTube](#)
- BAM Irakasle Eskola: [Formación para migrantes en BAM - YouTube](#)
- Euskalerriko Eskautak Bizkaia: <https://bizkaia.eskaut.org/5m-el-abrazo-de-los-pueblos-de-las-personas-y-de-los-derechos-humanos/>
- Itaka-Eskolapioak: <https://www.itakaescolapios.org/que-hacemos/hogares/>
- Alboan: <https://www.alboan.org/es/que-hacemos/proyectos>
- Lagun-artean: [http://www.lagun-artean.org/?page\\_id=10](http://www.lagun-artean.org/?page_id=10)
- ...

Partaideak hainbat taldetan banatuko ditugu. Bizkaiko Elizak ahulenen alde erakusten duen konpromisoaren inguruko aurkezpenetan, ikerketetan agertutako hitz batzuk nabarmenduko dituzte.

Ondoren, gelako beste talde batekin elkartu eta nabarmendutako HITZAK batera jarriko dituzte eta adostasun berrira iritsiko dira.

Azkenean, adostutako hitzak poliedroaren aurpegietan idatziko dituzte. Aurretik, poliedroa eta PMErako logoa jasotzen dituen Din A3 formatuko orria banatuko diegu.

Poliedro hau, ikusteko eran jarriko dugu gelan, lokalean, ikastetxean...

## **2. jarduera**

“Bertsoa” sortu Bizkaiko Elizak ahul eta kaltetuenen alde egiten duen apustuari buruz.

Etorria sustatzeko, osatutako bertso bat jarri dugu eta audioa elkarrekin abesteko.

Neska-mutilek bertsoak egin ondoren, gelan, taldean entzun daitezke eta baita kristau elkarteak ospatzen duen Eukaristian abestu edo irakurri.

Bertsoak talde bakoitzari eman diogun A3 poliedroaren aurpegietan idatz daitezke.

## 4.OTOITZ ETA KANTU

### AZKENEN LEHENTASUNA

Hauxe esan zaizu:  
Izan beti lehena.  
Atera notarik onenak  
eskolan,  
eta apurtu zeure paparraz  
helmugako zinta  
lehiaketa guztietan.  
Ez dezazula inor ikusi  
zure urratsen aurretik,  
eta ez dadila inor zure aurrean  
jarri banketeetan.  
Harritu adiskide guztiak  
azken asmaketa, helduentzako  
jostailu garestiak erakutsiz  
asperkizuna uxatzeko.  
Goreneko mailan  
har dezazula atsedean.

Baina Hitzak dio:  
Sentitu Jainkoaren begirada  
zure gainean pausatzen,  
Berak aukera mugagabeak  
adoretzen baititu  
zure misterioan.  
Heda zaitez oso-osorik  
lotuko zaituen oztoporik gabe,  
barruko beldurrik,  
kaleko zurrumurrurik,  
inbertsorearen diruzalekeriarik,  
jabeen mehatxurik gabe.  
Eta beldur gabe eseri  
aulki txikian  
herriko azkenekin.  
Hantxe aurkituko duzu  
Aitarekin batera guztiontzako  
askatasuna eta bizia  
sortzearen poza  
bikaintasun-ziurtagiririk  
aurkezteko derrigortasunik gabe.  
Erreinua sortzeko  
mundu honetako azkenak  
lehen izan daitezke.

*Benjamin Gonzalez Buelta, sj*

### IZAN NAHI DUDANA

Beretarrak zaintzen dituen artzain izan nahi dut;  
nekatuari itzal emango dion zuhaitz mardul;  
egartiaren egarria aseko duen iturri.

Isiltasunak beteko dituen abesti izan nahi dut;  
urrutiko zerumugak erakutsiko dituen liburu;  
bihotz hotza urtuko duen olerki;  
istorioa idazteko orri.

Barre izan nahi dut leku tristeetan,  
lur etzeetan erneko den hazi.



Maitasunezko gutun izan bakarrik dagoenarentzat,  
eta garrasi ozen gorrarentzat...

Artzain, zuhaitz edo iturri, abesti, liburu edo olerki...  
Paper, barre, garrasi, gutun, hazi...  
Zeuk nahi duzuna, zeuk eskatzen duzuna,  
zeuk amesten duzuna, Jauna,... horixe izan nahi dut.

*Jose Maria R. Olaizola, sj*

**BIDEOA:** <https://www.youtube.com/watch?v=yASgf0HzgGQ>

IAN: Inklusioa sustatzen duen Campanellaren film laburra. Pobreek atea noiz joko duten zain ez geratu, geu hurbildu, hesiak apurtu, e.a.

## NAHAS, KORAPILA NAZAZU

Nahas nazazu, Jesus, pobreen auzian.  
Nahas nazazu zeurea den auzi honetan.  
Nahas, korapila, ihardets nazazu.

Nahas nazazu zeure erara, harrituz,  
artegatuz, ilusionatuz.  
Ez dekadala begiratzeari uzten ikasi.  
Ez dekadala nahi izateari uzten ikasi.  
Ez dekadala maitatzeari uzten ikasi.

Korapila iezadazu bizitza,  
horixe gertatzen baita maitatzen dugunean.  
Korapila nazazu kartsu eginez.  
Korapila nazazu gauzak ez baitira errazak.  
Korapila nazazu malkoek min ematen baitute  
eta gosea txarra baita,  
eta garrasiak ezin baitira itzali.

Korapila nazazu hautsitako mundua  
ez baita leku eroso.

Ihardets nazazu isilean alde egiteko  
arrazoiak ematen ditudanean.  
Ez dekadala nire bidea atzeratu  
ordua da-eta berri-sukerak alde batera uzteko.  
Nire arazoetan arreta larregi jartzen badut,

nire jardueretan denbora larregi ematen badut,  
neure burua aurrera ateratzean baizik pentsatzen ez badut,  
nahas nazazu, Jauna, korapila nazazu

*(Patxi Loidi)*

**ABESTIA:** ¿QUIÉN? (Luis Guitarra)

<https://www.youtube.com/watch?v=38-cfktLFx4>

## MUNDUAREN OINAK GARBITU

Jaunak irakats diezadala munduak maite ez dituenen oinak garbitzen:

- izu, gose eta gerratik ihesi, pateran iristen direnen oin hezeak,
- aterperik ez dutenen oin lohiak,
- drogaren ziztaden arrastoez zauritutako oinak,
- Tenpluaren atzealdean begiak lurretik altxatzeko ausardiarik gabe,  
«erruki zaitez bekatari gaixo honetaz» diotenen oinak,
- ustez beren bikotekide direnek tratu txarrak eragiten dizkieten emakumeen oinak,
- azalaren kolorearengatik, ideia politikoengatik, erlijioagatik, generoagatik, sexu-orientazioagatik, beste hainbat gauzarengatik... munduak baztertzan dituenen oinak

Lagundu, Jauna, muturreraino maitatzen.

*Pablo Guerrero, sj*

**BIDEO-ABESTIA:** SIGUE HABIENDO TANTOS PIES QUE LAVAR IXCÍS TALDEA

<https://www.youtube.com/watch?v=AYaJAd6jv2k&t=13s>

## SAMARIAR SOLASALDIA

Eman, Jauna, zurea bezalako samariar bihotza  
anai-arreben beharrak ikusi eta bidean aurrera ez egiteko,  
oinazetan dagoenarekin negar egiten jakiteko,  
bidean aurki ditzakedan ondoezak arintzeko.

Jarri, Jauna, nire harrizko bihotzaren lekuan, haragizko bihotza,  
munduaren atsekabea, herrien pobretasuna,  
kanpoan utzitakoen negarra bere egiten dakien bihotza.  
Irakatsi gaitzaren truke ona ematen,  
epai eta borrero bihurtzeari uko egiten,  
barkatzen, behar izanez gero, zazpi milatan zazpi aldiz,  
barkatzen eta ez epaitzen,  
salbatzen eta ez kondenatzen.

Irakatsi, Jauna, oparotasunez ematen,

eskuak zabalez,  
esku betez, gainezka...  
emanez jasotzen baita.

*Fermin Negre*

## FAMILIA BAKARRA ZUREGAN

Jauna, familia senti gaitezela,  
guztiekin, inor kanpoan utzi gabe  
batez ere ezer gabe, inor gabe, besarkada.  
eta aterperik gabe sentitzen direnei  
aterpe emanez.

Zaindu lur hau, familia izan dadin Zuregan,  
gerrak, gosea eta pobretasuna, janari gozoz, barrez eta abestiz  
beteriko mahai bilakatuko diren familia.

Eta gure familia Nazareteko familiaren isla izan dadila,  
fedean, banatzean, maitatzean eta zerbitzatzean hasiz.

Eta nire familia askatasuna bizitzeko, abesteko, etxeko epeltasunean fedea  
ospatzeko, negar egin eta gozatzeko, maitasuna eman eta jasotzeko oasi izan  
dadila.

Eta nire esku dagoen guztia egin dezadala,  
nire bizia jokoan jarri, denak Zuregan familia bakar izateko, Jauna.

*Fermin Negre*

**BIDEOA:** Elkartasuna, hausnarketa. Zeinu txikiak eta behartsuekin bat egitea.  
[https://www.youtube.com/watch?v=2mQ7\\_EVhJfw](https://www.youtube.com/watch?v=2mQ7_EVhJfw)

## MAITASUNAREN ESANAHIA

Zure denbora emateko, PREST EGON.  
Hitz egiten dizunari, BETI ENTZUN.  
Ulertzen ez duenari, AZALDU.  
Adiskidetasuna, OPARITU.

Triste bizi direnak, ALAITU.  
Behar zaituenari, LAGUNDU.  
Gaixorik daudenak, BISITATU.  
Baztertuarengana, HURBILDU.

## MAITASUNA HAUXE DA, HAUXE DA. Bir

Zuk dituzun gauzak, BANATU.  
Desberdinak direnak, ONARTU.  
Atsekabea, oinazea, ULERTU.  
Besteen okerrak, AHAZTU.

Izadiari, bizitzari, ABESTU.  
Loreak, abereak, ZAINDU.  
Etxekoak, lagunak, MAITATU.  
Jesusen Jainkoari, ESKERTU.

*Bihotz Berriak CDa*  
Maite Losada

## En el corazón del mundo

Maite López

SOMOS FAMILIA, SOMOS IGLESIA  
SOMOS UN CUERPO UNIDO EN LA MISIÓN.  
SOMOS FAMILIA, PUEBLO DE DIOS,  
CREADOS PARA AMAR Y SERVIR (BIS).

Con Cristo en el corazón del mundo;  
buscar y hallar a Dios en todas las cosas;  
trabajar por la justicia con fe y alegría  
para mayor gloria de Dios (bis).

SOMOS FAMILIA, SOMOS IGLESIA  
SOMOS UN CUERPO UNIDO EN LA MISIÓN.  
SOMOS FAMILIA, PUEBLO DE DIOS,  
CREADOS PARA AMAR Y SERVIR (BIS).

## BERTSOAK

Aita Santuak mezua dakar,  
aurten bosgarren urtean,  
Jesusen berbak barriro ere  
guregana ekartean:  
ez\_ahaztu modan ez egon arren  
pobrezia gizartean:  
*"behartsu eta pobreak beti  
izango zuen artean".*

Zabal begiak eta bihotza,  
luza esku, sakel, zango,  
senide dogu pobrea, bardin  
hemengo edota hango,  
ez zaitetz izan kristau epela  
fededun halan-holango:  
*"behartsu eta pobreak beti  
zuen artean izango".*



Jesusen berbak ezin mantendu  
sakristian hor gordeak,  
pobre eguna ozen zabaldu  
kanpai ta kanpandorreak,  
mundu osoan jo neke barik  
alkartasun dei nobleak:  
*"beti izango zuen artean  
behartsu eta pobreak".*

Batzuk larregi, oso eroso  
bizi garan bitartean,  
han eta hemen, lagun larregi  
minimotik apartean,  
berbaz, egitez, ekin dagigun  
herri eta alkartean:  
*"behartsu eta pobreak beti  
izango zuen artean".*

Hitzak: J.M.Kortazar  
Doinua: Bertsozale web